

Aitor itsasoan

Aitor ez zen behin ere itsasoan ibilia.

Donibane-Lohizunera joan zen batean, Aita adiskide zuen Pantxoa arrantzalearekin mintzatu zen.

– Nahi duzuelarik, itsaso zabalean itzuli baten emaitera joanen gara – proposatu zion Pantxoak aitari.

– Bihar goizean berean, menturaz? – galdegin zuen Aitak.

– Nahi baduzue. Hau duguia arrantzale berria? – galdatu zuen Pantxoak, Aitor erakutsiz.

– Bai! Hauxe dugu mariñela. Itsasoa ezagutu nahi omen du – erantzun zion Aitak.

– Ez ahal haiz izituko?

– Ez! Ez! Ongi ibiliko naiz! – zion Aitorrek.

Ametsetan iragan zuen gau guzia. Ametsetan ikusi zuen ekaitz izigarria: **olatuek** txalupa zeruraino altxatzen zuten eta gero behe-reko zolaraino murgiltzen. Arrantzaleak harrituak zeuden.

Orduan, berak **arraunak** hartu zituen, gogor tinkatu eta olatu guziei nagusiturik, polliki-polliki txalupa portuko **kairaino** ekarri.

– Salbatuak gara! Gora Aitor! – oihu egiten zuten arrantzaleek.

– Gora Aitor! – erran zuen Aitak.

Bat-batean iratzartu zen, Aita "Goazen, Aitor!" erraiten entzutean.

– Bai, Aita! Bai! – erantzun zion.

Jauzi batez Aitor jaiki zen, askaria hartu eta Aitarekin abiatu. Ama lanera zoan eta biak portura **lagundu** zituen.

– Egun on, Aitor! Aski lo egin duka? – galdegin zion Pantxoak itsasontzitik.

– Bai! Ongi! (baina bere ametsa kontatu gabe...)

Itsasontzian sartu ziren Aita eta Aitor.

Pantxoak motorra piztu zuen. Itsasontzia mugitzen hasi zen uraren gainean. Aitorren bihotzak azkarki jotzen zuen.

– Ez da ekaitzik izanen? – galdegin zuen boz apalez.

olatuek: uhinek.

arraunak: ontziaren aitzinazteko eskuz baliatzen diren haga luze eta buruzapalak.

kaia: ontzien lotzeko, haien kargatzeko eta deskargatzeko lekua.

lagundu: eraman.



– Ez, Aitor, ez! Egon lasai! Mariñela beldurtzen hasia, ote?
Emeki-emeki, beste itsasontzien artetik, portutik atera zen.
Orain, itsasoko olatuek Pantxoaren itsasontzia inarosten zuten.
Pantxoak eta Aitak itsasora bota zituzten amuak eta arrantzan
35 hasi ziren. Aitorrek ere bota zuen amua eta handik laster **txitxa-**
rro argi bat harrapatu. Aitorren plazera! Arraina amutik askatu
zuen eta **otarrean** sartu.

Goiz hartan, hogeita lau txitxarro hartu zituzten gure hiru lagunek.

40 – Orain, goazen etxera! – erran zuen Pantxoak. Ongi, Aitor? Ez haiz ekaitzaren beldur?

– Ez, ez! batere! – erantzun zion Aitorrek.

– Oi zer arrantzalea heldu zaigun mutiko hau!

txitxarroa: itsas-arraina.

Jateko ona. Bizkarra berde iluna edo urdina du.

Udaberrian eta udan, itsas bazterretara hurbiltzen da.

otarrean: zarean.



– Itsasontzia eztiki dantzan ari zen olatuen gainean. Gure arrantzalea, alegera, kantuz hasi zen porturako bidean. 45

Itsasoa, lasai, **bare-bare** zegoen... Eguzkia **bete-bete**an zen, bazterren berotzen ari.

Donibane-Lohizuneko eliza-dorrea urrunera ageri zen berriz. Beste aldetik, Ziburuko kaia ezagutzen zuen Aitorrek.

Pantxoak itsasontzia gelditu zuen eta kaian lotu. Aitak lagundu zuen arraintzako tresnen biltzen. Eta Aitor? 50

Aitorrek otarrea hartu zuen eta lasterka joan zen etxera, Amari bere arrainen erakustera.

– Ama! Begira!

Amak arrainak kontatu zituen. 55

Aitorren espantu eta zalaparta... Segur ez duela bere lehen itsasoko ateraldia ahantziko!

bare-bare: geldi-geldia.

bete-betean: azkarrean.

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nor da Pantxoa ?
- Zer proposatzen dio Aitorren Aitari ?
- Aitorrek gauean egin ametsa kontu ezazu.
- Zer egiten dute itsasoan ?
- Aitor beldurtu ote da ?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Pasarte hau berridatz ezazu hutsuneak betez.

Atzo ekaitza genuen itsasoan eta handiak baziren. Egun opor eguna, Amak eramanen nau lagunekin jostatzera. Urrutira eta arrantzaleak ikusiko ditugu. Donibane-Lohizuneko etorriko dira eta kaian salduko dituzte.

hondartzara olatu
itsasontziak
arrainak portura

- Bi taula hauetako hitz franko errepikatzen dira. Hitz horiek kopia itzazu eta zein gairi lotuak diren errazu.

| | | | | |
|------------|-------------|------------|-------------|------------|
| itsasoa | olatua | xuria | laguna | txalupa |
| erlea | oihana | ziloa | arrantzalea | mokanesa |
| hogeia | eguna | itsasargia | ezponda | xoria |
| ortzadarra | etxea | bidea | bizikleta | eria |
| zaldia | axeria | atuna | hondartza | sareak |
| irudia | lurra | zuhaitza | hegaluzea | gaua |
| kaia | itsasontzia | amua | orena | txitxarroa |

| | | | | |
|---------|-------------|------------|-------------|------------|
| itsasoa | olatua | berdea | aitatxi | txalupa |
| sugea | erreka | izarra | arrantzalea | lepokoa |
| bat | argia | itsasargia | ezponda | oiloa |
| hodeia | eliza | ura | txokolatea | lepoa |
| burua | ilargia | atuna | hondartza | sareak |
| mahaia | Istripua | hostoa | hegaluzea | bihotza |
| kaia | itsasontzia | amua | belarra | txitxarroa |